



EBAZPENA, 2022ko apirilaren 5koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan 2022/2023ko ikasturtean ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda onartu eta argitaratzeko xedatzen duena.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartu zuen. Agindu horren V. kapituluan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-kontratuko irakasle eta hezitzaileen hitzarmen kolektiboaren III. eranskinean, hurrenez hurren, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien urteko zerrenda birbarematzeko prozesuari buruzko araudia ezartzen dira.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko azaroaren 5eko Ebazpenaren bidez, 2022/2023 ikasturterako urteko birbaremazio-prozesua ireki zen.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko otsailaren 15eko ebazpenaren bidez argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin-behineko zerrenda, 2022/2023 ikasturtekoa, birbaremazioaren ondoriozkoa, eta bide batez 2022ko otsailaren 17tik 23ra bitarteko epea ireki zen horri buruzko erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igarota, aurkeztutako erreklamazioak aztertuta eta antzemandako akatsak zuzendu ondoren, behin betiko onartu behar dira 2022/2023 ikasturterako birbaremazio-prozeduraren ondoriozko zerrendak.

Horregatik guztiagatik,

**EBAZTEN DUT:**

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda onartzea, 2022/2023 ikasturterako. Zerrenda hori burututako birbaremazio-prozesuaren emaitza da.

Bigarrena.- Izangaien behin betiko zerrenda horiek argitaratzeko agintzea webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-langileak/> Ordezkapenentarako izangaiak – Irakaskeak edo Irakasleak ez diren langileak (kasuaren arabera) – 2022-2023-ikasturtearen birbaremazioa eta Interneteko helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/es> (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) - Eremu pertsonala – Izapideak langileen sailarekin – Ordezkapen izangaien birbaremazioa – 2022-2023 ikasturtea.

Era berean, dagokionean, izangai bakoitzak bere erreklamazioaren emaitza kontsultatu ahal izango du, dagokion arrazoiketarekin, horretarako gaitutako estekan ("erreklamazioaren emaitza").

Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 5